porrontxo jaiak 88

EGIA - irailak 15,16,17,18



AGUR GISA

Zazpigarrenez oraingoan. Badatoz zorioneko PORRONTXOAK berriro ere. Azkar joan da urtea, ezta?- Azkarrago oraindik udako oporraldia. Ez kezkatu baina, udazkenaren atarian Porrontxoak dituzu eta.

Bandera beltzapeko festa hauek geroz eta jende gehiagok antolatuak dira. Prestaketan aritu diren hogeitamasko koadrilek mugitzen duten 500 eta gehiago lagunek bermatzen dute arrakasta. Horra hor datua eta bere esanahia: egiatartasuna ongi errotuta dago hemen. Egiatorrok Egian nahi dugu dibertitu eta horretarako geuk antolatzen dugu festa nahi dugun eran. Horregatik, urtean zehar ditugun sentipenak, gogoak, amorruak eta nahiak modu alaian kaleratzeko erabiliko ditugu festak, ez bait dira festak eguneroko arazoetatik aldentzeko, arazoen gainetik bizitzen eta borrokatzen jarraitzeko asmoa dugula adierazteko baizik.

Beste urte bat igaro da eta gauzak ez dira gehiegi aldatu: iaz bezala auzoko lagun batzu ditugu —Isidoro, Koldo, Josean eta Montxo gurekin ezin egongo direnak, estatuko espetxe beltzetan sartuta dauzkatelako. Ez ditugu ahazten eta festetan ere ozen aldarrikatuko dugu espetxeratuak, errefuxiatuak eta atzerriratuak gure ondoan nahi ditugula. Bestaldetik, iaz bezala ere, baditugu auzoan beste «lagun» batzu, Atotxako hotelekoak hain zuzen, gurekin nahi ez ditugunak. Hauek ere ez ditugu ahazten eta Porrontxo jaiak ez direla haientzat esan behar dugu argi eta garbi. Doazela hemendik!

Hemen daukazun egitaraua diru askotxo, prestaketa —lan mordoxka eta, batez ere, jende askoren borondatearen emaitza duzu. Gustokoa baduzu gu pozik eta gustokoa ez baduzu, lasai: festarik onena ez dago egitarauaren baitan, norberaren ongi dibertitzeko gogoaren baitan baizik. Zure esku beraz. Bejondeizula!

Etorri da iraila
etorri da festa,
Porrontxoetarako
blusa ondo presta.
Inork ez beza esan
oraingoan basta!
Oso ondo pasa eta
ez gehiegi gasta.

Egian aldapa asko
ez gehiegi aztora,
dantza egindakoan
zaitezkete zora.
Festa hau izan dadila
auzoaren lora,
Gora Porrontxoak ta
Egia ere gora!

JAI-BATZORDEAK

PORRONTXO JAIAK 88
EGITARAUA

OSTEGUNA 15

Arratsaldeko 7etan: Buruhandiak eta erraldoiak aterako dira **Tirritarra** txarangarekin.

8,30etan: Hasiera-etxaferoa eta kuadrilen jaitsiera (Ikastolaren Plaza, Tejeria, Plaza Handi, **Tirritarra** eta **Porrontxo** txarangekin.

Gaueko 11etan: Dantzaldia **TRAKETS** taldearekin.

OSTIRALA 16

12,30etan: Trikitilariak auzoan zehar.

Arratsaldeko 5etan: Haur jokuak Plaza Handin: Biziprobak (zintak, zirkuitua, eta moteltasuna) Herri kirolak eta herri jokoak (soka-tira, txingak, lokotsak, sagarra, e.a.)

7,30etan: Buruhandiak eta erraldoiak **Pasai** txarangarekin.

7,30etan: Kronoeskalada.

8etan: Futbolin-txapelketa azkarra. (Tejerian anbulategi aurrean).

8etan: Ping-pong txapelketa azkarra Plaza Berrin.

8,30etan: **Txalaparta** txaranga auzoan zehar.

Gaueko 11etan: Dantzaldia **BASAKABI** taldearekin.

12etan: **Nekaezinak** txaranga.



LARUNBATA 17 —PRESO ETA ERREFUXIATUEN EGUNA—

Goizeko 9etan: Goiz-soinua auzoan zehar **Iputardiak** txarangarekin.

10etan: Haurrentzako txokolate-jana Gladys - Enean.

10,30etan: Haur jokuak Gladys Enean: Zirkuitua oztopoez (zubiak, eskailera, irristadura, e.a.), Eskulanak (bustina, margoak, e.a.).

12,30etan: **TRAPU ZAHARRAK** antzerki-taldearen emanaldia auzoan zehar.

Arratsaldeko 3,30etan: Plater-tiraketa Mundaizen.

4etan: Kuadrilen arteko jokuak: goitibeherak, arraultze-borroka, asto-lasterketa. **Pasai** txarangarekin.

8etan: Kuadrilen Poteoa txarangekin. **Porrontxo** eta **Iputardiak.**

Gaueko 10etan: Kuadrilen afaria Tejeria kalean, **Nekaezinak** txarangarekin.

12etan: Dantzaldia **ZINTZOAK** taldearekin.

1etan: Manifa. Preso eta errefuxiatuen alde.

2etan: Txalaparta, txaranga.

3etatik 5etara: Helduentzako jokuak: kukaña uretan, oheburuko borroka....

5etan: **Pasai** txaranga.

OHARRA: Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik

PORRONTXO

IGANDEA 18

Goizeko 5,30etan: Baratxuri zopa.
6etan: Bigantxak.
9,30etan: **Nekaezinak** txaranga.
10etan: Batel txapelketaren final Urumean, Maria Cristina eta Burdinezko zubien artean.
11,30etan: Pilota txapelketaren finala Atotxako frontoian. ANGELUSa gaztetxeko **ZINTZARRI** antzerki taldearekin.
Arratsaldeko 4,30etan: **«TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX»** euskal pailasoak, Pl. Handin.
5etan: Mus txapelketa.
Kuadrilen arteko herri-kirolak.
6etan: **Aitor Ikastolako** haur abesbatza.
6,30etan: «Lehengo Kanta Zaharrak, gaurko umeen ahotsetan», **Landaberri Ikastolako** haurrak.
7etan: Dantzari Batasuna.
Bote eta Toka txapelketak. **Txalaparta** txarangarekin.
7,30etan: Umorezko rallya.
8etan: Sardiña jatea.
9etan: Sari-banaketa.
10,30etan: Bukaerako traka.

Oharra: Asteazkena, hilak 14, gaueko 10,30etan Plaza Berrin **«LA BATALLA DE ARGEL»** filma eskainiko da.